

EUSKO JAURLARITZA

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

*Hezkuntza Sailburuordetza
Hezkuntza Ikuskaritza Nagusia*



GOBIERNO VASCO


**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA**

*Viceconsejería de Educación
Inspección General de Educación*

HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN URTEKO PLANA

2015 – 2016 IKASTURTEA

HEZKUNTZA IKUSKARITZA E.A.E.





1.- SARRERA

Hezkuntza Ikuskaritzaren planak ikastetxeetan eta Administrazioiko beste esparru batzuetan esku hartzeko bideak dira. Halaber, esku-hartze horiek ahalbidetzen dituen zerbitzuaren barne antolaketa jasotzen du.

Ikuskaritzaren jarduerak lau esparrutan sailkatzen dira:

- Ebaluazioa.
- Ikuskatzea.
- Aholkularitza, orientabidea eta informazioa.
- Lankidetzak.

Ikastetxeetan egiten dituen esku-hartzeen bidez irakaskuntzaren kalitatea eta zuzentasuna bermatzeko hezkuntza-legeriak esleitzen dion funtzioari ematen dio Hezkuntza Ikuskaritzak erantzuna.

Ikastetxeei dagokienez, Hezkuntza Ikuskaritzaren esku-hartzeak ez dira araudia betetzen den edo ez ikuskatzera mugatu behar; horretaz gain, hezkuntza-proiektuak gauzatzeko prozesuan eman behar diete ikastetxeei laguntza eta haiek hobetzeko izan behar dute lagungarri, norberak bere burua ebaluatzeko prozesuak sustatuz eta kanpo ebaluazioetan parte hartuz. Hitz batean, esku-hartze horiek balio erantsia eman behar diote ikastetxeen helburu nagusiar, hots, kalitateko hezkuntza-erantzun bat ematea ikasle bakoitzari, ikasteko prozesuetan arrakasta izan dezaten eta, beraz, emaitzak hobe ditzaten.

Hezkuntza-administrazioari eta beste instituzio eta erabiltzaile batzuei dagokienez, egiten zaizkion errekerimendu eta eskaeretan lankidetzan ari behar du Hezkuntza Ikuskaritzak eta eskatzen dizkieten txostenak, arauzko prozeduren bidez, eman behar ditu.

Hainbat urtetako planifikazio estrategiko batean txertatzen diren urteko planen bidez planifikatzen ditu Hezkuntza Ikuskaritzak bere esku-hartzeak. Zentzu horretan, 2015-2016ko Urteko Plan hau 2014-2017ko Hiru Urteko Plan Orokorreko bigarren kurtsoari dagokio. Urteko Plan honen 3. eta 4. ataletan, helburu eta jarduerari buruzkoak, adierazi eta zehazten dira Hiru Urteko Plan Orokorren helburuak aurrera eramateko esku hartzeko oinarritzko ildoei lotutako jarduerak.

Horiek horrela, 2015-2016ko Urteko Plana Hiru Urteko Planaren helburuak lortzeko bigarren urratsa da. Zentzu horretan, Urteko Planaren jarduera ondorengo alderdiak lortze aldera bideratu behar dira:

- Ikastetxeak hobetzeko prozesuan laguntza finkatu eta indartzea, pertsonen ebaluaziotik eta kanpo ebaluazioetatik abiatuta.
- Sustatzea ikuskariak esleitutako ikastetxeetan esku-hartze globalaren metodologia batekin egin beharreko ikuskatze-jarduera.
- Ikuskariaren prestakuntza hobetzea, haren garapen profesionala ahalbidetzeko eta, horrela, barne eta kanpo hartzaileei eraginkortasun handiagoz erantzuna emateko.
- Hezkuntza Ikuskaritza osatzen duten pertsona guztiak Urteko Plana garatu eta hobetzeko prozesuan era aktiboan parte hartze eta inplikazioan sakontzea.
- Euskararen erabilpena sustatzea, Ikuskaritzan hizkuntz normalkuntzari laguntzeko asmoz.
- Hezkuntza Ikuskaritza kudeatzeko sistemaren bikaintasuna lortze aldera aurrera egin eta sakontzea, zerbitzua hobeto emateko.

Hiru Urteko Planaren berrikuntza esanguratsuenak, Urteko Plan honen jardueretan islatzen direnak, hauek dira:

- ED 2015 hobetzeko planak baloratzea eta Hezkuntza Ikuskaritza hobetzeko proposamenak gehitzea.
- Erasmus Plus programa europarrean parte hartzea, aurkeztutako proposamena onartzearen zain.
- Irakaskuntza-funtzioa ebaluatzeko prozesuaren diseinu eta garapenari hasiera ematea, hasierako aplikazioa praktiketako funtzionarioen kasuari.
- Hezkidetzaz eta genero-indarkeriaren prebentzioaz zuzendaritza-planak agintzen dizkigun jarduerekin jarraitzea eta plan hori ezartzearen ondoriozko berdintasun-batzordea sortzea.
- Ikuskaritzaren atari elektronikoa, Hezkuntza Ikuskaritzaren kudeaketan erabiltzen diren tresna informatiko guztiak jasoko dituen, ezartzeko prozesuari hasiera ematea.
- Ikuskaritzan euskararen erabilpena normaltzeko plan bat zehaztea.

Urteko Plana egiteko, puntu hauek hartu dira kontuan: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Sailburuordetza eta Zuzendaritza desberdinen eskaerak, Lurralde Arteko Koordinazio Batzordeak Zonalde Burutzekin egindako balorazioak, kudeaketa-eredu aurreratuaren araberako autoebaluazio-ikastaroaren ondorio eta proposamenak, Ikuskaritzaren jardueren hartzaileak zein mailatan dauden pozik jakiteko inkestak emaitzak eta egindako auditorien emaitzak.

Gainera, 2012-2016ko gobernu-programa hartzen da kontuan, bikaintasunaren aldeko konpromisoari, hezkuntza-sistemaren motorra den aldetik, begira batez ere, zuzendaritza-taldeak eta irakasleen, berriztapenaren sustatzaileak diren aldetik, garapen profesionala hobetzera zuzendutako jarduerekin. Hori guztia hezkuntza-sistemaren ardatza diren ikasleen onerako.

2015-2016ko Urteko Planak garatzeko eta jarduteko irizpideak bateratzeko orduan ahalik eta eraginkortasun handiena bilatu behar dela azpimarratzen jarraitu behar du. Jarduerak lurralde eta zonaldean banatu beharko dira, lan-kargen eta eginkizunak gauzatzeko orduan izan beharreko eraginkortasunaren arteko oreka kontuan hartuta.

Ikuskarrien prestakuntza eta gaurkotzea funtsezkoak dira, esleituta dituzten funtzioak eraginkortasunez aurrera eramateko orduan. Zentzu horretan, ahaleginak areagotzen jarraituko dute, lana orientatzeari eta martxan jartzeko irizpideak bateratzeari begira. Jarduera garrantzitsuenei dagokienez, nola eramaten ari diren aurrera jakiteko eta hobekuntza-proposamenak eta prestakuntza-premiak zehazteko prozedurak ezarriko dira.

Azkenik, Hezkuntza Ikuskaritzak 2014-2015eko ikasturtean ISO ziurtagiria berritu du, UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren arabera. Aipatutako ziurtagiriarekin jarraitzeaz gain, Hezkuntza Ikuskaritza kudeatzeko sistemak Euskal-itik antolatzen den kudeaketa aurreratuaren eredura jotze aldera hasiko da lanean.

2.- KALITATEAREN POLITIKA*

Hezkuntza Ikuskaritzaren kalitatearen politika, Lurralde Arteko Koordinazio Batzordeak eta Zonalde Burutzek 2006-2007ko ikasturtean adostutako UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren baldintza dena, ondoren adierazten dena da:

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Sailburuordetzaren menpeko Hezkuntza Ikuskaritzaren ustez, bere lana beharrezkoa da hezkuntza-sistemak, oro har, eta ikastetxeek, bereziki, kalitatez funtzionatzeko.

Horregatik, haren jarduerak, eman zaizkion ebaluazio-, kontrol-, aholkularitza- eta lankidetzafuntzioak, behar bezala kudeatzea premiazkoa da eta ikuskari bakoitzak kontuan hartu behar du eguneroko lanean, Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzionamendu ona segurtatzeko eta hezkuntza-erkidegoa, Hezkuntza Administrazioa eta Hezkuntza Ikuskaritzako partaideak berak ahalik eta gustuen egon daitezen.

Hezkuntza Ikuskaritzan zerbitzuak ematen dituen pertsonala (ikuskeriak eta administrazio-pertsonala) haren aktiborik nagusia da. Ikuskeritza Nagusiak eta burutzek, beren lidergoaz baliatuz eta hierarkiaren, parte-hartzearen, espezializazioaren, profesionaltasunaren, talde-lanaren eta emaitzen ebaluazioaren printzipio antolatzaileen arabera, pertsonala motibatua eta pozik egon dadin egingo dituzte ahaleginak, pertsonal horren giza garapen eta profesionalaren alde lan eginez.

Hezkuntza Ikuskeritzak, Ikuskeritzaren eredu bat finkatzeko prozesuan, bere gain hartzen du antolaketa eraginkor bat izatearen konpromisoa, ondorengo ezaugarriak izango dituen: haren profesionalak parte hartuko dute eskaintako jardura eta zerbitzuen eguneroko kudeaketan, prozesuak etengabe hobetzera bideratuko da eta hezkuntza-erkidegoa, Hezkuntza Administrazioa eta Hezkuntza Ikuskeritza bera ongi senti daitezten behar diren gestioak egingo ditu.

Antolaketaren helburuak betetzen direla segurtatzeko asmoz, Hezkuntza Ikuskeritzak kalitatea kudeatzeko sistema bat ezarri du, Ikuskeritzaren jardura gidatu behar duten estrategiak kontuan hartuko dituen. Hauek dira:

- Erkidegoaren premia eta itxaropenei erantzuna ematea: ikastetxeei, ikasleei, gurasoei eta Hezkuntza Administrazioaren arduradunei, beren funtzioetan jarduten dutenean.
- Arreta hobea ematea hezkuntza-erkidegoko kidek egindako eskaerei.
- Hezkuntza Ikuskeritzari eta, bere funtzioak betetzean, egiten dituen jardueri eragiten dieten legezko eta arauko baldintzak betetzea.
- Ikastetxeetara egiten diren bisiten kalitatea hobetzea.
- Era planifikatuan, koordinatuan eta taldean lan egitea.
- Behar diren planen bidez Ikuskeritzako pertsonal guztiaren etengabeko prestakuntzari eta parte-hartze aktiboari laguntza ematea.
- Hezkuntza Ikuskeritzaren barne- eta kanpo-komunikazioaren bideak hobetzea.
- Behar den malgutasunaz joketzea, Hezkuntza Ikuskeritzaren jardueri dagozkien eskakizun eta premietara egokitzeko.
- Ikuskeritzaren funtzionamenduan definitutako prozesuetan dauden akatsen arrazoiak identifikatu eta ezabatzea, prozesu horiek eraginkorragoak izan daitezten.

Kalitate-politika honek behar den erreferentzia ematen du, Ikuskeritzaren jarduran nagusi diren estrategiak ezarri eta berrikusteko. Estrategia horiek kalitatearen helburuetan konkretatzen dira.

Hezkuntza Ikuskeritzak behar diren bideak ezarri ditu, politika hori pertsonal guztiari jakinarazteko eta hark uler dezan, eta sistema berrikustean, aldizka berrikusten dela bermatzen du.

* Ikasturte honetan, egitekoa, ikuspegia eta baloreak berrikusteko 2014-2015eko ikasturtean egindako prozesuaren ondoren, Ikuskeritzaren kalitate-politika gaurkotuko da eta, gaurkotzeko prozesu horretan, estrategietan zentratuko gara.

3.- HELBURUAK

Urteko Plana eta berorretan ezartzen diren jarduerak 2014-2017ko Hiru Urteko Plan Orokorraren helburuak betetzera bideratuta daude eta plan orokor horretan zehazten diren esku hartzeko oinarritzko ildoekin bat datoz (Hiru Urteko Plan Orokorraren I. eranskina).

Ondoren jarduera hauek jasota agertzen dira, Hiru Urteko Plan Orokorraren helburuekin eta aipatutako esku hartzeko ildoekin batera.

HELBURU OROKORRAK 2014-2017 HIRU URTEKO PLANA	ESKU HARTZEKO ILDO OROK. HIRU URTEKO PLAN OROKORRA	JARDUERAK 2015-16 IKASTURTEA
<p>1. Ikastetxeak, zuzendaritza-funtzioa eta irakaskuntza-funtzioa ebaluatzea eta hezkuntza-sistemaren kanpo ebaluazioetan parte hartzea.</p>	<p>Ikastetxeak hobetzen laguntzeko kanpo ebaluazioak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Hobekuntza Planen jarraipena 2015eko diagnostiko-ebaluazioaren emaitzei buruzko ikastetxeen txostenak baloratzea. Lehen Hezkuntzako 3.ean eta 6.eko ebaluazioan parte hartzea.
	<p>Ikastetxeak hobetzen laguntzeko zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Ikastetxe bakoitzaren egoeraren arabera zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa Zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko araudia gaurkotzea
	<p>Irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa, hobeto betetzen laguntzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Irakaslearen perfil profesionala egitea eta unibertsitatearekin eta beste instituzio batzuekin kontrastatzea. Ebaluatzeko prozedura eta haren pilotatzea diseinatzea.
<p>2. Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren kanpo eta barne hartzaileen premiei eraginkortasunez erantzutea.</p>	<p>Hartzaile desberdinei eman beharreko erantzuna hobetzea, Ikuskaritzaren esku hartzearen kalitatea areagotzeko lagungarri izango diren estrategiak ezarriz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Ikuskaritzaren txostenak baloratzeko prozedurak diseinatu eta ezartzea eta berrikusi eta hobetzeko prestakuntza planifikatzea.
<p>2. Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren kanpo eta barne hartzaileen premiei eraginkortasunez erantzutea.</p> <p>3. Hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta betebeharrak bermatzeko, indarreko araudia beteko dela ikuskatzea.</p> <p>4. Hezkuntza Sailaren programa eta proiektua ikastetxeetan nola garatuko diren kontrolatu eta ebaluatzea.</p>	<p>Ikastetxeen ikuskatzea: erreferentziako ikuskariak esku hartze globaleko metodologia batekin jardutea, ikastetxeen funtzionamendua hobetzen laguntzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Hamaika Eskuren jarraipena Ikastetxeak hobetzeko prozesuaren jarraipena egitea eta alderdi nabarmenen ebaluazioa. Ikasturtearen hasiera eta bukaerako esku-hartzea. Sailaren eskaerak (arau-kontrola eta programen jarraipena).

HELBURU OROKORRAK 2014-2017 HIRU URTEKO PLANA	ESKU HARTZEKO ILDO OROK. HIRU URTEKO PLAN OROKORRA	JARDUERAK 2015-16 IKASTURTEA
<p>2. Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren kanpo eta barne hartzaileen premiei eraginkortasunez erantzutea.</p> <p>3. Hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta betebeharrak bermatzeko, indarreko araudia beteko dela ikuskatzea.</p>	<p>Eskola-giroaren jarraipena: elkarbizitza kudeatzea, hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta betebeharrak beteko direla bermatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eskola-jazarpenaren kasuen jarraipena eta ikastetxeetako elkarbizitzaren kudeaketa. • Eskola-jazarpenaren protokoloa gaurkotzea. • Elkarbizitza- eta hezkidetzeta-planaren gida egitea.
<p>5. Ikuskariak Hiru Urteko Plan Orokor honen ondoriozko premien arabera prestatzea.</p>	<p>Prestakuntza hobetzea eta Ikuskaritzaren garapen profesionala sustatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Urteko Planen jarduera-ildoei zuzenean lotutako alderdiei buruzko informazio- eta prestakuntza-saioak antolatzea. • Ebaluazioari eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzeari lotutako alderdiei arreta berezia ematea.
<p>6. Hizkuntz normalkuntzari laguntzeko asmoz, euskararen erabilpena sustatzea.</p>	<p>Euskaraz komunikatzea sustatu eta hobetzeko jardueren planifikazioa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikuskaritzan euskararen erabilpena normalizatzeko plan bat zehaztea. • Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntzarako IRALE programak ematen dituen aukerak erabiltzea.
<p>7. Hezkuntza Ikuskaritza antolatzeko eredua berrikustea.</p>	<p>Ikuskaritzak hobeto funtzionatzeko antolaketa-eredua gaurkotzea eta ikuskarien inplikazioan eta esku-hartzean sakontzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Araudi berriaren antolaketa-alderdiak ezartzea • Zonalde burutzen merezimendu-lehiaketa • Ikuskari guztiek Ikuskaritzaren jardueren kudeaketan parte hartzeko eredu berria
<p>8. ISO 9001:2008 ziurtagiriarekin jarraitzea eta zerbitzua hobeto emateko kudeaketa-sisteman aurreratzea.</p>	<p>Ikuskaritzak hobeto funtzionatzeko kudeaketa-sistema berrikustea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • V2 aplikazioan kudeaketa apur-apurka ezartzea. • Ikuskaritzaren kudeaketa atari berrian apur-apurka ezartzea. • Ikuskaritzaren kalitate-politika berrikustea. • Autoebaluazioaren zerbitzua (EFQM ereduaren arabera) erabiltzea.



HELBURU OROKORRAK 2014-2017 HIRU URTEKO PLANA	ESKU HARTZEKO ILDO OROK. HIRU URTEKO PLAN OROKORRA	JARDUERAK 2015-16 IKASTURTEA
9. Ikuskaritza-funtzioa ebaluatzea.	Ikuskariaren garapen profesionala hobetzeko, ikuskaritza-funtzioa ebaluatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Ikuskaritza-funtzioaren gaitasunen matrizarri buruz hausnarketa eta analisisia egitea. Berori gaurkotzea. • Zerbitzu-eginkizunetan ari diren ikuskariak ebaluatzeko prozedura aplikatzea
10. Hezkuntza-munduko beste organismo edo erakunde batzuekin lankidetzan jarduteko ildoak ezartzea.	Berriztapenari eta praktika onen trukatzeari laguntzeko, beste ikuskaritza eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzea. Erasmus Plus programan parte hartzea.	<ul style="list-style-type: none"> • “Erasmus Plus “ programaren jarduerak lehen kurtsoan aurrera eramatea. • Beste hezkuntza-ikuskaritza eta erakunde batzuekin praktika onak trukatzea

4.- 2015-2016ko IKASTURTEAN ESKU HARTZEKO OINARRIZKO ILDOAK

Esku hartzeko Hiru Urteko Plan Orokorraren oinarritzko ildoak erreferentziako markoa dira, aurreikusitako hiru urteko helburuak lortzeko lagungarri direnak.

4.1 *Ikastetxeak hobetzen laguntzeko kanpo ebaluazioak.*

Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzioen artean, besteak beste, hezkuntza-sistemaren eta integratzen duten elementuen ebaluazioan esku hartzea dago. Zentzu horretan, azpimarratu behar da Ikuskaritzak EAEn errolda-izaera batekin egin diren azken kanpo ebaluazioetan bete duen funtzio inportantea. Alde batetik, ikastetxeen lagin batean egin diren proben aplikazioaren kontrol bat egin du Ikuskaritzak eta, bestetik, ebaluazioaren emaitzei erantzuna emateko ikastetxeek egindako hobekuntza-planak baloratu ditu.

Ikasturte honetan jarduera hauek egingo dira:

- Hobekuntza-planen jarraipena

Ikastetxeek beren urteko planetan aurreikusitako jarduerak ezarri beharko dituzte, aurreko diagnostikoen ebaluazioen emaitzen ondoriozko hobekuntza-planetatik abiatuta. Erreferentziako ikuskariek hobekuntza-plan horiek martxan jartzeko prozesuaren jarraipena egiten jarraituko dute.

- 2015eko diagnostiko-ebaluazioaren hobekuntza-planen balorazioa eta Hezkuntza Ikuskaritzaren hobekuntza-proposamenak gehitzea.

2015-2016ko ikasturtearen lehen hiruhilekoan 2015eko diagnostiko-ebaluazioaren emaitzei buruzko txostenak jasoko dituzte ikastetxeek. Ikastetxe bakoitzaren barne emaitza hauekin eta hausnartu eta eztabaidatzeko prozesu baten ondoren, ikastetxeek hobekuntza-planak egingo dituzte, Hezkuntza Ikuskaritzak emango die oniritzia eta 2015-2016ko ikasturtearen hirugarren hiruhilekotik aurrera jarriko dira martxan. Ikuskaritzak hobekuntza-plan horiek egiteko prozesuak sustatuko ditu, aztertuko ditu, oniritzia emango die eta praktikan jartzeko prozesuen jarraipena egingo du.

- Lehen Hezkuntzako 3.eko eta 6.eko ebaluazioan parte hartzea.

Gaurko Hezkuntzaren lege organikoak xedatzen duenez, kanpo ebaluazio bat egingo zaie Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. kurtsoetako ikasleei. EAeko Hezkuntza Ikuskaritzak bere laguntza emango du, ezartzen den eran, proba hori egiteko prozesuan.

4.2 *Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa, ikastetxeak hobekuntza izaten laguntzeko.*

Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa egiten sei ikasturte daramatza Hezkuntza Ikuskaritzak, argitara eman diren ebaluazio-prozesuari buruzko aginduak erreferentzetat hartuz zuzendaritza-funtzioaren aritzeko era hobetzen laguntzea helburu duen ebaluazioa, alegia.

Ikasturte honetan jarduera hauek egingo dira:

- Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa, ikastetxe bakoitzaren egoeraren arabera.

Ikasturte honetan lau ebaluazio mota izango dira:

- a) Karguan aritzeko lehen aldiko bigarren kurtsoan dauden eta 2014an izendatuak izan diren zuzendariekin egingo direnak.
- b) Karguan aritzeko lehen aldiko hirugarren kurtsoan dauden eta 2013an izendatuak izan diren zuzendariekin egingo direnak.
- c) 2010eko ikasturtean lehen aldiz izendatuak izan diren eta karguan jarraitzen duten zuzendarien agintaldiko bigarren kurtsoari dagokiona.
- d) 2009ko ikasturtean lehen aldiz izendatuak izan diren zuzendarien agintaldiko hirugarren kurtsoari dagokiona.

Kasu bakoitzerako “zuzendaritza-funtzioan aritzea ebaluatzeko gidan “ adierazten den prozeduraren arabera jokatu da.

2015-2016ko ikasturtean dokumentazioa berrikusiko da, plantilako kide guztiei zuzendutako prestakuntza emango da, emandako txostenen kalitatea aztertuko da eta, prozesuko jarduerak ikasturtean zehar nola gauzatu diren ikusteko, jarraipen bat egingo da.

- Zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko araudiaren gaurkotzea.

Ebaluazio-taldeek eta zuzendariak selekzionatzeko azpiprozesuko ekipoek planteatutako hobekuntza-proposamenetatik abiatuta eta gaur egun indarrean dagoen hezkuntzaren lege organikoa argitara eman izanaren ondoriozko ikuspegi berria kontuan hartuta, gaurko araudi erregulatuak gaurkotzeko proposamen bat egingo da.

4.3 Irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa, berorretan hobeto aritzen laguntzeko.

Azken ikasturteetan funtsezko aurrerapenak gertatu dira EAEko Hezkuntza Ikuskaritzan zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko prozesuak diseinatu eta ezartzeko orduan, baita ikastetxeen kanpo ebaluazioekin, diagnostiko-ebaluazioari begira batez ere, lankidetzan aritzean ere.

Prozesu horiek finkatuta eta berorien aplikazioan sortutako ezagutzatik abiatuta, ildo horretan aurrerapen bat proposatu ahal du EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak.

Horregatik, ikasturte honetan jarduera hau egingo da:

- Irakaslearen perfil profesionala egitea eta unibertsitatearekin edo beste erakunde batzuekin alderatzea.
- Ebaluatzeko prozedura eta haren pilotatzea diseinatzea.

4.4 Hartzaille desberdinei eman beharreko erantzuna hobetzea, Ikuskaritzaren esku-hartzearen kalitatea areagotzeko lagungarri izango diren estrategiak ezarriz.

Azken ikasturteetan egiaztatu denez, errendimendu maila handia du EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak, programatutako eta eratorritako jardueren % 100 egin baitira praktikan.

Une honetan gure jardueren kalitatea sakonago hobetzearen alde jarraitu behar dugu lanean. Txostenen kalitatea azpimarratzen jarraituko dugu, haien helburua behar bezala bete dezaten eta, horiek horrela, Ikuskaritzaren hartzaille desberdinei eman beharreko erantzuna hobetzeko lagungarri izan daitezten.

Ikasturte honetan jarduera hau egingo da:

- Ikuskaritzaren txostenak baloratzeko prozedurak diseinatu eta ezartzea eta prestakuntza planifikatzea, berrikusi eta hobetzeko.

Horretarako, azpiprozesu nagusien ekipo arduradunek ildo hori landuko dute ikasturte honetan, Ikuskaritzak egindako txostenak baloratuz, geroago behar diren prestakuntza-jarduerak sustatzeko. Diagnostiko-ebaluazioa eta zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko ekipoek era espezifikoa landuko dute jarduera hori 2015-2016ko ikasturtean.

4.5 Ikastetxeak ikuskatzea: erreferentziako ikuskaria esku-hartzeko metodologia global batekin aritzea, ikastetxeen funtzionamendua hobetzen laguntzeko.

Indarreko hezkuntza-araudiak ikastetxeen funtzionamendua eta haietan egin beharreko esku-hartzea ezagutzeko exijitzen dio Hezkuntza Ikuskaritzari, hezkuntza-sistema hobetzeko egin beharreko ekarpenaren oinarriak diren aldetik.

Ikuspegi global eta sistemiko batetik abiatuz ikastetxeetan egiten diren jarduera guztiak integratu eta elkarren artean erlazionatzen diren esku hartzeko eredu baten aldeko aukera egin du EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak. Horiek horrela, hobeto ezagutzen dira ikastetxeak eta egin daitezke hobeto funtzionatzearen aldeko urratsak emateko lagungarri izango diren proposamenak. Gainera, eredu hau esku-hartze honetan izan beharreko planteamendu aktibo batekin identifikatzen da.

Esku hartzeko era horrek Ikuskaritzak ikastetxeetan egiten dituen jarduera guztiei eragiten die, Ikuskaritzaren hiru urteko eta urteko planetan planteatutako helburuekin bat etorrira egin behar diren jarduerari, alegia.

Esku hartzeko eredu honekin erreferentziako ikuskariaren jarduerak, funtsean, bi aldetatik datoz; alde batetik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eskariz egiten direnak (programen jarraipena: Hamaika Esku, Hauspoa, Hezkidetzeta Plana, ExE, ...); bestetik, Ikuskaritza Zerbitzuaren beraren premia eta ekimenek eragindakoak (diagnostiko-ebaluazioa, zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa, eskola-emaitzen analisia, EHUK, diagnostiko-ebaluazioaren emaitzetatik abiatuta, egindako *“balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta praktika onak”* ikerketan jasotakoen arteko selekzio batetik datozen jarduera-ildoak: programazioen ebaluazioa, irakasleen prestakuntza eta ikasleen ebaluazioa).

Gainera, ikasturte bakoitzaren hasieran, ikastetxean egin beharreko jarduera planifikatuko du ikuskari bakoitzak, aurreko ikasturtean egindako balorazioetan oinarritutako helburuak ezarri, eta helburu horiek zein mailatan lortu diren baloratuko du ikasturte bakoitzaren bukaeran.

Eta, esku-hartze horren ondorioz, urteko jardueran jasotako datuen ondoriozko balorazioetatik eratorritako hobekuntza-proposamenak helaraziko dizkio erreferentziako ikuskariak ikastetxeari eta gomendio eta proposamenak emango ditu, datorren ikasturteari begira Ikuskaritzak ikastetxean egin beharreko jarraipen egokiena zein den zehazteko.

Esparru horretan, 2015-16ko ikasturtean, oro har, jarduera hauek egingo dira:

- Hamaika Eskuren jarraipena
- Ikastetxeak hobetzeko nabarmenak diren alderdien jarraipena eta ebaluazioa.
- Ikasturtearen hasiera eta bukaerakok esku-hartzea.
- Sailaren eskaerak (arau-kontrola eta programen jarraipena).

2015-2016ko ikasturtean izan beharreko lehentasunezko esku-hartzearen alderdiei buruzko ikuskari nagusiaren argibideen bidez jasoko da jarduera-eremu horiei lotutako jardueren konprezioa.

4.6 Eskola-giroaren jarraipena: elkarbizitzaren kudeaketa, hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta eginbeharrak beteko direla bermatzeko.

Eskola-jazarpenaren kasuen edo elkarbizitzaren kontrako beste edozein portaeraren jarraipena egiten jarraituko du Hezkuntza Ikuskaritzak. *Berdinen arteko tratu txarrak gertatuz gero ikastetxeetan jarduteko gida* berrikusiko da, bere helburuari era egokiagoan erantzuna eman diezaion.

Ikasturte honetan jarduera hauek egiten jarraituko dugu:

- Eskola-jazarpenaren kasuen eta ikastetxeetako elkarbizitza kudeatzeko eraren jarraipena.
- Eskola-jazarpenaren protokoloa gaurkotzea.
- Elkarbizitza- eta hezkidetzeta-planaren gida egitea.

4.7 Prestakuntzaren hobekuntza eta Ikuskaritzaren garapen profesionala sustatzea.

Ikuskaritzaren jarduera-eremuak eta aritzeko metodologiak etengabe aldatzen ari den eduki profesional handiko prestakuntza eskatzen dute eta horrek prestakuntza-jardueren multzo bat planifikatzea exijitzen du.

Ikasturte honetan jarduera hauek egingo dira:

- Informazio- eta prestakuntza-saioak antolatzea, esku hartzeko Urteko Planen ildoei zuzenean lotutako alderdiei buruzkoak.
- Ebaluazioari eta ikastetxeetan izan beharreko esku-hartzeari lotutako alderdiei arreta berezia ematea.

Urteko Plan honen IV. eranskinean Prestakuntza Planaren jarduerak adierazten dira.

4.8 Euskarazko komunikazioak sustatu eta hobetzeko jardueren planifikazioa.

Ikuskaritzaren ahozko eta idatzizko komunikazioak eta komunikazio telematikoak *Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilpena Normaltzeko Plan Orokorrean (2013-2017)* eta geroago aurrera eraman litezkeen planetan xedatutakora egokitzeko, euskararen erabilpena, idatziz batez ere, hobetu beharko da, euskara erabili beharko da barne jakinarazpen eta txostenetan eta ikastetxeekiko harremanetan, Euskara Erabiltzeko Planean aurreikusitako kalitateko komunikazioak sustatu beharko dira eta erabili beharko dira IRALE programak Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntzarako eskaintzen dituen aukerak.

Ikasturte honetan jarduera hauek egingo dira:

- Ikuskaritzan euskararen erabilpena normalizatzeko plan bat zehaztea.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntzarako IRALE programak eskaintzen dituen aukerak erabiltzea.

4.9 Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko antolaketa-eredua gaurkotzea. Ikuskarien inplikazioan eta esku-hartzean sakontzea.

Ikasturte honetan antolatzeko eredia berrikusten jarraituko dugu, Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko asmoz. Jarduera hauek egingo dira:

- Araudi berriaren antolaketa-alderdiak ezartzea.
Ikuskaritzaren dekretu berrian sartuta dauden antolaketa-neurriak ezarriko dira, dekretu hori argitara ematen denetik kontatzen hasita.
- Zonalde burutzen merezimendu-lehiaketa
Hezkuntza sailburuaren aginduaren bidez deituko da 2015-2016ko ikasturtean zonalde burutzak betetzeko merezimendu-lehiaketa.
- Ikuskari guztiek Ikuskaritzaren jardueren kudeaketan parte hartzeko eredu berria.
Ikuskaritzaren jardueren kudeaketan ikuskari guztien inplikazioa eta parte-hartzea funtsezko bi ardatzetan sustatuko dira 2015-2016ko ikasturtetik aurrera:

1) Zonaldeko ekipoetan parte hartzea.

Zonaldeko bileretan eta antolatzen diren zonalde mailako jardueretan parte hartuz.

2) Azpiprozesuetako ekipoetan eta lan-batzordeetan parte hartzea.

Azpiprozesu eta batzordeetako ekipoek oinarritzko osaketa hau izango dute:

- Ikuskaritza Nagusiko ordezkari 1, ekipo edo batzordeari behar den eginkizuna aginduko diona.

- Ekipoko ordezkari 1, ekipoarekin eta Ikuskaritza Nagusiarekin koordinatuko dena.
- Lurralde bakoitzaz arduratuko den ikuskari bat, gutxienez, Lurralde Burutzarekin koordinazioan azpiprozesuko jardueren garapen eta jarraipena lurraldean egingo duena.

Gainera, azpiprozesuko ekipoentzat zonalde bakoitzeko ikuskari arduradun bat, gutxienez, sartuko da lurralde planetan. Ikuskari arduradun horrek, lurralde arduradunarekin eta zonalde burutzekin koordinazioan, berorren gain hartuko du azpiprozesuko jarduerak zonaldean garatzearen eta haien jarraipena egitearen ardura.

Praktikan, horrek azpiprozesu bakoitzean lurralde arteko ekipo bat eta hiru lurralde ekipo koordinazioan aritzea ekarriko du.

Zonalde burutzek, zonalde arduradunekin lankidetzan, beren gain hartuko dute zonaldeko azpiprozesuko jarduerak aurrera eramateko prozesua ikuskatzearen ardura.

Lurralde eta zonalde buruek ekipo edo batzorderen baten ardura izango dute.

Ikuskaritzan beste kargu batzuk betetzen ez dituzten ikuskariak izango dira ekipo edo batzorde batzuetako arduradunak.

Ekipoko arduradunak izango du bilerak antolatu eta deitzearen ardura, dagokion ikuskari zentralarekin ados jarrita.

Taldeetako kideek rol batzuk bete beharko dituzte, hauek esate baterako: idazkaria, hizkuntz normalkuntzako arduraduna, V-92rekin koordinatzea eta ekipoak berak beharrezkotzat jotzen dituenak.

Ikuskaritza Nagusiko arduradunek ikasturtean gauzatu beharreko eginkizunak aginduko dizkiote ekipo bakoitzari, Urteko Planean xedatutakoaren arabera.

Ekipoek egindako lanak entregatuko dituzte, baita, eskatzen zaienean, egindako jarduera jasota agertuko den lurralde edo erkidego mailako txostenak ere.

Lurralde arduradunek beren gain hartuko dute ekipoak lurralde bakoitzean egin beharreko lanak antolatzearen ardura, baita lan horiek inplikaturako pertsona guztiei hedatzearena ere. Horretarako, lurralde eta zonalde burutzekin eta zonaldeetako ekipoko arduradunekin koordinatuko dira.

4.10 Kudeatzeko sistema berrikustea, Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko.

EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren politika eta estrategia (egitekoa, ikuspegia eta baloreak) berrikusi eta gaurkotu ondoren eta ISO 9001:2008 ziurtagiriarekin jarraitzen dugula, zerbitzua hobeto emateko kalitatea kudeatzeko sisteman sakonduko da. Ikasturte honetarako jarduera hauek egitea aurreikusten da:

- V92 aplikazioan kudeaketa apur-apurka ezartzea.

Azpiprozesuak V-92 aplikazio informatikoan ezartzeko prozesuan aurrerapenak egitea, ikastetxeko koaderno barne.

- Ikuskaritzaren kudeaketa atari berrian apur-apurka ezartzea.

Ikuskaritzaren atari informatiko berria martxan jartzea.

- Ikuskaritzaren kalitate-politika berrikustea.

- Autoebaluazio-zerbitzua (EFQM ereduaren arabera) erabiltzea.

2015-16ko ikasturtearen bukaeran kanpo kontraste bat, kudeaketa aurreratuen ereduaren arabera, egiteko eskaera egingo zaio Euskalit-i.

4.11 Ikuskari-funtzioaren ebaluazioa, ikuskariaren garapen profesionala hobetzeko.

Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak emandako argibideen arabera, Ikuskaritzan zerbitzu-eginkizunetan ari diren pertsonen ebaluazioa egiten jarraitu behar da, zerbitzu-eginkizun horiek luzatzeko. Ikasturte honetan jarduera hau egingo da:

- Ikuskari-funtzioaren gaitasunen matriza hausnartu, aztertu eta gaurkotzea.
- Zerbitzu-eginkizunetan ari diren ikuskariak ebaluatzeko prozedura aplikatzea.

2015-2016ko ikasturtean aplikatuko da zerbitzu-eginkizunetan ari diren ikuskariak ebaluatzeko prozedura, ezarritako prozeduraren arabera.

4.12 Beste ikuskaritza eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, berriztapena eta praktika onak sustatzeko. “Erasmus Plus “ programan parte hartzea.

Hiru Urteko Plan Orokorrean indarrean dagoen aldiaren sustatuko da Hezkuntza Ikuskaritzaren dimentsio europarra indartzeko prozesua, gaitasun profesionalak “Erasmus Plus “ programaren KA2jardueran parte hartzearen bidez areagotzeko asmoz.

Beste herrialde eta hezkuntza-sektore batzuekin lankidetzan hasteaz gain, hezkuntza-ikerketari eta prestakuntza pedagogikoari lotutako beste hezkuntza ikuskaritza eta erakunde batzuekiko informazioa eta esperientziak trukatzeko prozesua indartuko da.

Ikasturte honetan jarduera hauek aurreikusi dira:

- “Erasmus Plus “ programaren jarduerak lehen kurtsoan aurrera eramatea.
- Beste hezkuntza-ikuskaritza eta erakunde batzuekin praktika onak trukatzea.

5.- HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN PROZESUAK

2014-17ko Hiru Urteko Plan Orokorrean prozesuen mapa berrikustea planteatzen da, “Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko kudeaketa-sistemaren berrikuspenera “ esku hartzeko funtsezko ildoaren arabera; izan ere, ildo horrek hiru urteko planaren beraren helburu honekin, “ISO 9001:2008 ziurtagiriarekin jarraitzea eta zerbitzua hobeto emateko kudeaketa-sisteman aurrerapenak egitea “ du zerikusia.

Ondoren aipatzen diren azpiprozesuen sailkapena eta izena berrikustea onartu ondoren, prozesuen mapa berrikusiko da 2015-2016ko ikasturtean. Horregatik, Urteko Plan honetan ez da mapa hori sartzen.

Ondoren agertzen direnak dira indarreko Ikuskaritzaren zerbitzuak emateari buruzko prozesu eta azpiprozesuen zerrendak. Kasu bakoitzean aplikatzeko moduko prozesuen arabera taldekatuta daude eta AZren, XXYren eta KKren arabera kodetu dira:

XXk sartuta dagoen makroprozesuaren digituak adierazten ditu.

YYk sartuta dagoen prozesuaren digituak adierazten ditu.

KKk azpiprozesua identifikatzen duen ordena-zenbakia adierazten du.

Prozesu bakoitzaren barruan irizpide funtzionalen, eskaeraren, bezeroen tipologiaren arabera ... taldekatzen dira azpiprozesuak. Azpiprozesuen taldekatze horrek KK digituen kodetzeko ordenan du eragina (ez dute ordena korrelatiboa zehatz-mehatz errespetatzen, ezarritako taldekatzea errespetatzen dute eta funtzioen araberrako aurreko kodetzearen zenbakitzearekin jarraitzen dute.

PR0210 Ebaluazioa

PR0220 Ikastetxeen ikuskatzea

PR0230 Eskaerei arreta ematea

PR0240 Aholkularitza

Ondorengo tauletan agertzen dira 2015-2016ko ikasturtean indarrean dauden azpiprozesuen izen luzea eta laburtua, haien kodeekin batera. (V92) Hezkuntza Ikuskaritzaren aplikazioan sartzen diren heinean aktibatuko da azpiprozesuen kodetze berria.

PR 0210 Ebaluazioa

AZ 0210 05	Diagnostiko-ebaluazioa
AZ 0210 10	Zerbitzu-eginkizunak
AZ 0210 13	Praktiketako funtzionarioak
AZ 0210 20	Zuzendaritza-funtzioa
AZ 0210 25	Ikuskari-funtzioa

PR 0220 Ikastetxeen ikuskatzea

AZ 0220 02	Irakasleen prestakuntza
AZ 0220 40	0-3 urteko Haur Hezkuntzako ikastetxeak
AZ 0220 50	EED
AZ 0220 53	Irakasleen absentismoa
AZ 0220 55	Eskola-egutegi eta ordutegiak
AZ 0220 56	Ikastetxearen antolaketa-agiriak
AZ 0220 61	Zuzendaritzakoak ez diren karguak
AZ 0220 64	Hamaika Esku
AZ 0220 65	Hauspoa
AZ 0220 71	Programazio didaktikoak
AZ 0220 73	NCE eta curriculumak malgutzeko neurriak
AZ 0220 86	Ikasleen absentismoa
AZ 0220 93	Akta akademikoak eta eskola-emaitzak
AZ 0220 96	Ikasleen ebaluazioa

PR 0230 Eskareei arreta

AZ 0230 01	Eskaerak /Jakinarazpenak
AZ 0230 02	Ikuskaritzak planifikatutako eskaerak
AZ 0230 08	Arreta etxean ematea
AZ 0230 11	Plazaren perfilera egokitzea
AZ 0230 12	Irakaskuntzan aritzeko gaitasuna
AZ 0230 24	Eskolatzeko programa osagarriak
AZ 0230 60	Zuzendaritza-taldearen izendapena
AZ 0230 81	Portaerak zuzentzeko prozedurak
AZ 0230 82	Kalifikazioen kontrako erreklamazioa
AZ 0230 83	Euskaratik salbuestea
AZ 0230 85	Irakasleen titulazioak
AZ 0230 87	Eskola-jazarpena
AZ 0230 91	Ikastetxe publikoetako pertsonalaren kontrako erasoen kasuak
AZ 0230 92	Pertsonalaren eta ikasleen grebak
AZ 0230 95	Enplegatu publikoaren diziplina-erregimena

PR 0240 Aholkularitza.

Zeharkako prozesua,ez dago AZrik.

Plan honen II. eranskinean Ikuskaritzaren azpiprozesuen zehaztapenak adierazten dira,kode eta izen berriekin batera.

6.- IKUSKARITZAREN PRESTAKUNTZA

Hiru Urteko Plan Orokorretan agerian geratzen da prestakuntzaren garrantzia, hobekuntza eta ikuskarien garapen profesionala sustatzeko elementua den aldetik; izan ere, Ikuskaritzaren prestakuntzari espezifikoki eskainitako helburu orokor bat dago plan orokor horietan, baita euskararen erabilpenari lotutako beste bat ere, hizkuntz normalkuntza sustatzeko asmoz.

